

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**28/2019 Foru Agindua, abuztuaren 12koa, zeinaren bidez baimena ematen baita Maria Angeles Sopelana Garcia behin-behineko izendapena egiteko Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanposturako**

Erriberabeitiko Udalak atal honi jakinarazi dio aldi baterako izendapen baten beharra daukala, Maria del Mar Hernandez Rodriguez idazkaria oporretan ordezkatzeko.

Hortaz, korporazio horretako funtzionario Maria Angeles Sopelana Garcia andrearen behin-behineko izendapena proposatzen du.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko eskumen eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Maria Angeles Sopelana Garcia andrea behin-behinean izendatzea Erriberabeitiko Udaleko idazkari, eginkizun horietan jardun dezan, titularra ez dagoen bitartean, hau da 2019ko abuztuaren 1etik 9ra (biak barne).

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldi bako bako ez du indarririk.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Erriberabeitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 12a

*Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orokaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SÁENZ**